



Julian Albistur Aranburu
(Xenpelar Bertso Eskola)

Bere bizitzako azken urteotan gaixotasunari duintasunez aurre egin arren, apirilaren 8an, 70 urte betetzear zegoela, albiste txar bat jaso genuen: Jose Luis Zabalak utzi gintuela. Bera joan arren, berak egindako lanaren emaitza gure artean gelditzen da, ordea.

Frankismo garaian, langileen eskubideen aldeko borrokan biziki jardun zuen, eta geroago ezker abertzaleko partaide bezala zinegotzi izan zen Udalean. Baina, gauza horien gainera, Jose Luis euskaltzale sutsua eta bertsozale amorratua zen, euskara izan baitzen bere bizitzaren ardatz eta oinarri sendoa, eta horri tinko eutsi zion bizitza osoan. Euskal Herri euskalduna amesten zuen.

Herriko euskararen egoerarekin kezkatuta, alfabetatzeari ekin zion AEKn. Ahalegin horretan ziharduela, 1987an, Xenpelar Bertso Eskola sortzeari ekin zion, beste kide batzuekin batera. Bertan burubelari murgildu zen, herri honek bertsoaritzaren munduan izan duen tradizio oparoa berreskuratzen nahian. Lan horren ondorio bezala etorri ziren "Zapirain Anaiak" bertso-paper lehiaketak, Santo Tomasetako bertso-saioak, hitzaldiak eta omenaldiak; besteak beste, Zabaleta anaiei, Atañori, Makazagari, Gaztelumendiri, Arkaitza tabernari eta Xamalbideri egindakoak izan dira. Lau Haizetara Euskaldunon Elkartearen sorreran ere parte hartu zuen.

Urte asko igaro dira geroztik. Orain, Xenpelar Bertso Eskolaren 25. urteurreneko ospakizunen arian aurkitzen garen honetan, zurtz utzi gaitu. Hala ere, Jose Luisek egindako lana ez da alferrikakoa izan. Bere ildotik jarraituko dugu, ahal dugun neurrian bidea eginaz, bere lana eskertzeko modurik egokiena hori baita.

Gure oroimenean izango dugu beti. Mila esker Jose Luis, bihotz-bihotzez, egindako guztiagatik.



Jose Luis ekitaldi batean.



Makazagaren omenaldian.

Euskarā ardatz hartuz eraiki
huen hire bizi-plana,
gero Xenpelar Bertso Eskola
herrian sortzeko zama;
lan horri esker bertsolaritza
iritsi huen gugana.
Ilđo hortatik jarraitu nahirik
egiteko zubi lana
hemen gabiltzak uztartu nahian
geroa ta iragana.

Hurbiltasuna sentiaraziz
hi ezagutu orđuko,
gure hizkuntza maite huela
ez đik inork ukatuko;
ta bertsozale aparta hintzen,
guztiok gaituk lekuko.
Hik ereindako hazia hemen
ez đuk alferrik galđuko;
oroimenean jarraituko đuk,
ez haugu inoiz ahaztuko.



1999an Ion Ansari saria ematen.